



**Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena, kirol-teknikarien eta Goi-mailako kirol-teknikarien titulazio ofizialak lortzera daramaten araubide bereziko ikasketetan sarbidea izateko berariazko proben deia egiten duena, hainbat kirol-modalitate eta espezialitatetan.**

Hezkuntzako Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aldatutako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, hezkuntzari buruzkoak, 64.5 artikuluan zehazten duenez, Gobernuak, Autonomia-erkidegoei kontsultatu eta gero, kirol-irakaskuntzetako ikasketei dagozkien titulazioak; berrietako bakoitzaren curriculumaren oinarritzko aldeak; eta zentroek kirol irakaskuntzak emateko gutxieneko betebeharrak ezarriko ditu.

Lege organiko hori garatzeko, uztailaren 26ko 628/2022 Errege Dekretuak aldatutako urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren bidez, araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen da, eta, besteak beste, irakaskuntzetarako sarbidea arautzen da. Bertan ezartzen da betekizun orokor batzuek gain, berariazko baldintza batzuk ere egiaztatu beharko direla, hezkuntza-administrazioek antolatu eta kontrolatutako berariazko proba bat gaindituz. Proba horrek Estatu osoan izango duela balioa ezartzen du baita ere.

Beraz, Hezkuntza Administrazio honentzat egokia da, EAEren esparruan, Araubide Bereziko Kirol-irakaskuntzetara sartzeko proben deialdia egitea, izangaiek sartzeko baldintzak modu homogeneoan betetzen dituztela bermatzeko eta proba horiek gainditzeak Estatu osoan balioa izango dutela bermatzeko.

Horrela, Hezkuntzako Sailburuordeak honako hau

**EBATZI DU:**

**Lehena.- Xedea eta aplikazio-eremua.**

1. Ebazpen honen bidez, Kirol Teknikariaren eta Goi-mailako Kirol Teknikariaren tituluak eskuratzeko ikasketak egiteko sarbide-proben deia egiten da EAEn, I. ERANSKINEAN adierazitako kirol-modalitate eta ikasturteetarako.
2. Sarbide-proba hauen antolaketa Durangoko CPED KIROLENE Kirol Ikasketako Ikastetxe Publikoak egingo du.

**Bigarrena.- Hartzaileak.**

- 1.- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleak.





- a) Irakaskuntzen maila ertaineko lehengo mailara sartzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea den beste titulu bat behar da, baita bosgarren puntuan ezarritako berariazko sarbide proba gainditzea ere. Goi-mailan sartu ahal izateko beharrezkoa izango da Batxilergo titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea eta dagokion modalitateko Teknikari titulua, gainera, horrela badagokio, bosgarren puntuan ezarritako berariazko sarbide proba gainditzea ere.
- b) Mendiko kirolen kasuan, Sakana, Eskalada eta Erdi Mendiko espezialitateetako erdi-mailako azken ziklora sartzeko, beharrezkoa izango da mendi-ibilietako erdi-mailako lehehengo zikloa gaindituta izatea eta, era berean, kirol-espezialitate bakoitzari dagokionez bosgarren puntuan ezarritako berariazko sarrera-probak gainditzea.
- Zaldiketa modalitatearen kasuan, bere edozein diziplinatako erdi-mailako azken zikloan sartzeko modalitateko erdi-mailako lehen zikloa gaindituta duela egiaztatu beharko da, eta, era berean, bosgarren puntuan ezarritako sarbide-proba espezifikoak gainditu beharko dira, disziplina bakoitzari dagozkionak.
- c) 1363/2007 Errege Dekretuaren hamabigarren Xedapenean Gehigarrian aipatzen diren baldintzetako bat egiaztatzen bada, nahikoa izango da sartzeko, izan ere, aurreko a) puntuan aipatutako baldintza akademikoaren balioa izango du.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo edo baliokideak Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak.

Aurreko atalak ezarritakoa gorabehera, adin-baldintzak bete eta araubide bereziko kirol irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 31.artikuluaren zehaztutako baldintza akademikoak ordezkatzeko dituen heldutasun-proba gainditzen duten ikasleek ere izango dute irakaskuntzotan sartzea.

### **Hirugarrena.- Sarbide-proba eta betebeharretatik salbuespena.**

1.- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 67 eta 85 artikuluetan eta urriaren 15eko 10/1990 Kirol Legearen 53 artikuluan zehazten denaren arabera, goi-mailako kirolaria edo errendimendu handiko kirolaria dela egiaztatzen duena salbuetsita egongo da kirol-irakaskuntza hauetara sartzeko behar diren baldintza espezifikoetatik.

2.- 1363/2007 Errege Dekretuaren bigarren Xedapen Iragankorrari jarraituz, abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuaren babesean ezartzen diren titulu eta



irakaskuntzen modalitate eta espezialitate berriak sortu artean, irakaskuntza hauetan sartzeko proba espezifikoak egitetik salbuetsita egongo dira aipaturiko xedapenean zehazten diren kasuetan dauden pertsonak.

3.- Ebazpen honen bidez deitutako probaren batean izena eman duten izangaiek, aurreko bi ataletan aipatutako baldintzarik betetzen badituzte, epaimahai ebaluatzaile eta antolatzaileari eskatu ahal izango dio proba espezifikoak egiteaz salbuetsita egotea, eta, horretarako, beharrezko egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

### **Laugarrena.- Sarbide-proba egokituak urritasunak edo ezintasunak egiaztatzen dituztenentzat.**

1.- Pertsona urritu edo ezinduek eskabideak egiten badituzte kirol-teknikariaren tituluari dagozkion irakaskuntzetan sartzeko, erakunde eskumendunek emandako minusbaliotasun-ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

2.- 1363/2007 Errege Dekretuaren hirugarren Xedapen Gehigarria betez, eta hala egokituz gero, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak pertsona adituak laguntza edo txostenak eskatu ahal izango ditu epaimahaiak izangaien urritasun-maila edo mugak aztertu, eta irakaskuntzak atarramentu onez egiteko, ziklo bakoitzari dagozkion gaitasunak lortu eta lanean aritu ote daitezkeen baloratzeko.

3.- Epaimahai horrek, bidezko iritziz gero, egokitu egingo ditu aipatu egoeran dauden izangaiek gainditu beharreko berariazko sarbide-probak. Nolanahi ere, Errege Dekretu horren 2. artikuluan finkatutako helburu orokorren funtsa errespetatu beharko dute, bai eta titulu bakoitzaren ziklo eta gradurako ezartzen diren helburuak ere, hala badagokio, kirol-teknikariaren espezialitateetako kirol-irakaskuntzei dagokien curriculumak ezartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeko probak eta baldintzak arautzen dituen Dekretuan ezartzen direnak.

### **Bostgarrena.- Berariazko Sarbide-probak.**

1.- Helburua eta egitura.

Kirol-teknikarien eta Goi-mailako Kirol teknikarien irakaskuntzetara sartzeko proben helburua da izangaiek frogatzea egoera fisiko egokia eta berariazko trebeziak dituztela, aukeratu duten prestakuntzari atarramentu ona ateratzeko beste, alegia.

2.- Probak

Modalitate bakoitzeko probaren edukiak eta ebaluazio-irizpideak, dagokion irakaskuntzaren oinarrizko araudiak ezarritakoa izango da, II. ERANSKINEAN adierazten da araudia.



### **Seigarrena.- Azken ebaluazioa**

Probetan «gai» edo «ez-gai» kalifikazioak emango dira soilik. Sarbide-probaren zati bakoitza gainditu beharko dituzte izangaiek «gai» kalifikazioa ateratzeko.

### **Zazpigarrena.- Berriazko probak egin eta berriazko betebeharrak baloratzeko epaimahaia.**

1.- CPED KIROLENE KIIP ikastetxe antolatzaileak modalitate edo espezialitate bakoitzeko proposatuz, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatutako epaimahaia arduratuko da probak antolatu, kontrolatu eta ebaluatzeaz.

2.- Ikastetxe horrek aurkeztu behar izango du, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaritzan, epaimahaikideen zerrendaren proposamena modalitate edo espezialitate bakoitzeko, I. Eranskinean iragarritako data baino lehenago eta III. eranskinean adierazitako eredia erabiliz.

3.- Epaimahaiaren osaketa II. eranskinean adierazten den oinarrizko araudi erregulatzailerak ezarritakoaren arabera izango da

4.- Epaimahaiburuak bermatuko du sarbide-probak oinarrizko araudiak ezarritakoaren arabera egingo direla.

5.- Idazkariak proben aktak egingo ditu beren garapena Ebazpen honek ezarritakoaren arabera egin dela ziurtatuz. Epaimahaiburua ez dagoenean, haren ordezkoa izango da.

6.- Ebaluatzaileek modu independentean baloratuko dituzte probak, kasuan kasuko irizpideei jarraituz eta oinarrizko araudiak adierazitako titulazioa eduki beharko dute, II. eranskinean adierazten den araudia alegia.

7.- Epaimahaiak proposatuta, beharrezko aholkulariak izendatu ahal izango dira, dagokion espezialitatekoak.

8.- Epaimahaiak sarbide-probak martxan ipintzean sortu eta hauen garapenean eman ahal diren gorabehera teknikoak zein logistikoak ezagutu eta konpondu behar ditu. Era berean epaimahaiak sarbide-proben garapenarekin erlazio zuzena duten Ebazpen honen edukien alderdietan bere interpretazioa egiteko gaitasuna du, baita oinarri arautzailean aurreikusita ez dauden lehen aipatutako gorabeherai buruzko egoeratan ere.

Edozelan ere, epaimahaiak, eta beste Administrazio publikoko mendeko organo guztiak, gure ordenamendu juridikoan indarrean dauden araudietan agertzen diren prozedura administratiboen printzipio orokorrak bete behar dituzte.



### **Zortzigarrena.- Sarbide-probarako izena ematea. Epea eta tokiak.**

- 1.- Probetan izena emateko, horretarako berariaz ezarritako prozedurari jarraituko zaio.
- 2.- Probetan izena emateko epeak I. Eranskinean adierazitakoak dira, bertan ageri diren hasierako eta amaierako egunak barne daudelarik.
- 3.- Sarbide-probarengatik ordaindu beharreko prezio publikoa izena emateko unean indarrean dagoen Hezkuntza Sailak ematen dituen zerbitzuengatik prezio publikoak finkatzen Aginduan zehaztutakoa izango da. Prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita ez dauden eskabideak onartzeko, dagokion izena emateko epearen barruan ordaindu beharko dira.
- 4.- Ebazpen honetan deitutako modalitateetako batean izena emanaz gero, modalitate horretarako antolatuko diren probetatik bakar bat egin ahal izango da.
5. Probarako onartutakoen behin-behineko zerrenda CPED KIROLENE KIIPko iragarki-taulan eta haren webgunean: (<http://www.kirolene.hezkuntza.net>) argitaratuko da modalitate bakoitzerako,
- 6.- Behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, izangaiak 2 eguneko epea izango du erreklamazioa egiteko, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazio hori idatziz aurkeztuko da bai ikastetxeko idazkaritzan edo bai berariaz ezarritako sistema jarraituz.
- 7.- Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, behin betiko zerrenda iragarki-taulan eta CPED KIROLENE KIIPren webgunean jarriko da, hurrengo bi egunak baino lehen.
- 8.- Desadostasunik izanez gero, izangaiak gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango du Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari bideratuta, hilabeteko epean behin betiko zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

### **Bederatzigarrena.- Sarbide-proba egiteko toki-egunak.**

- 1.- Proben ordutegiak eta tokiak CPED KIROLENE KIIP ikastetxeko iragarki oholean eta bere web-gunean (<http://www.kirolene.hezkuntza.net>) argitaratuko dira aurretiaz.



2.- Proba egiteko tokian ikasleak bere burua identifikatu beharko du baliozko egiaztagiriarekin.

### **Hamargarrena.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak aurkeztea.**

1.- Behin-behineko emaitzak argitara emateko tokiak: CPED KIROLENE KIIP ikastetxe antolatzailearen iragarki-oholean eta web orrian <http://www.kirolene.hezkuntza.net>.

2.- Hartutako ebazpenarekin bat ez badator izangaia, kalifikazioak erreklamatzeko prozedura honi jarraituko zaio:

2.1.- Behin-behineko emaitzak CPED KIROLENE KIIP ikastetxe antolatzailearen iragarki-oholean eta web orrian argitaratu direnetik hurrengo bi eguneko epearen barruan, izangaiak egin ahal izango du behin-behineko emaitzaren aurkako erreklamazioa. Erreklamazioa epaimahaiburuari aurkeztuko zaio, ikastetxeko idazkaritzak luzatutako berariazko eredu erabiliz.

2.2. Erreklamazio epea agortu eta ondorengo bi egunetan behin betiko emaitzak argitaratuko dira CPED KIROLENE KIIP ikastetxearen iragarki-oholean eta web orrian.

2.3.- Izangaiak, hartutako erabakiarekin ados egon ezean, behin betiko emaitzak argitaratzen direnetik eta hilabeteko epean gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dezake Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritaren aurrean.

Horrela hartuko den azken ebazpena behin betikoa izango da, eta administrazio-bidea agortuko du.

### **Hamaikagarrena.- Probaren balioa eta ziurtapena.**

1.- Proba gainditu duen horren ziurtagiri ofiziala eman diezaiotela eskatu ahal izango du, Estatu osorako balioko duena.

2.- Inola ere ez da emango proben zatietako bat gainditu izanaren ziurtagiririk.

3.- Berariazko proba gainditu izanak oinarritzko araudian ezarritako iraupena izango du, probak amaitzen direnetik kontaktzen hasita.

### **Lehenengo xedapen gehigarria.- Ikasleak onartzea.**

1.- Berariazko proben behin betiko emaitzak argitaratu eta gero, "Gai" emaitza lortu duten izangaiak onartze eskaera luzatu ahal izango dute aukeratutako ikastetxean, bere matrikula egutegia eta hezkuntza-eskaintzaren arabera. Onartze



ikastetxe horretan egiaztatu behar izango dira dagokion modalitaterako eskakizun orokorrak eta berariazkoak.

2.- Ikastetxean eskainitako plazak onarpen eskaerak baino gehiago badira, oinarritzko legedian ezarritako onarpen-irizpideak erabiliko ditu ikastetxeak beti ere bere hezkuntza-eskaintza kontuan harturik.

**Bigarren xedapen gehigarria. Berariazko sarbide-probaren ordezkio kirol merezimenduak.**

1.- 628/2022 Errege Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera kirol-merezimenduaren edo lanbide edo kirol esperientziaren betekizuna betetzen duten pertsonak salbuetsita egongo dira probetan izena ematek. Egoera hori irakaskuntza egiteko aukeratutako ikastetxean matrikulatzeko unean egiaztatu beharko dute.

2.- 628/2022 Errege Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera kirol-merezimendua betez ebazpen honen bidez deitutako probaren batean izena eman duten hautagaiek dagokion merezimendua edo esperientzia bete izanaren ziurtagiria eskatu ahal izango diote probak antolatu eta ebaluatzen dituen epaimahaiari. Horretarako, beharrezko egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean

**HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA**

Izpta.: Begoña Pedrosa Lobato



## I. ERANSKINA

Izenemateen eta proben Ikastetxe antolatzailea	Araubide Bereziko Kirol Ikasketen berariazko Sarbide Proba	Ikasturtea	Izena emateko epea	Ikastetxe eta Plangintza zuzendaritzara mahakide proposamena bidali <sup>1</sup>
CPED KIROLENE KIIP (Durango)	<b>Mendiko Kirolak. Goi-mailako Goi-mendia</b>	23-24	2023-11-13tik 2024-01-11ra	2023-11-13a baino lehen
	<b>Gradu Ertaineko 1.zikloa, Bela Aparailuarekin</b>	23-24	2023-11-27tik 2023-12-19ra	2023-11-27a baino lehen
	<b>Gradu Ertaineko 1.zik. urpekaritza Eskafandrarekin</b>	23-24	2023-11-27tik 2024-01-10era	2023-11-27a baino lehen
	<b>Mendi Kirol. G. Ertaineko 1.zikloa Mendi-ibiltaritza</b>	24-25	2024-03-31tik 2024-04-24ra	2024-03-31 baino lehen
	<b>Mendiko Kirolak. G. Ertaineko azken zikloa (Eskalada / Arroilak / Ertain Mendia)</b>			
	<b>Gradu Ertaineko 1.zikloa, Futbola / Areto-futbola</b>	24-25	2024-04-24tik 2024-05-24ra eta 2024-07-01etik 2024-09-02ra	2024-04-24a baino lehen
	<b>Gradu Ertaineko 1.zikloa, Eskubaloia</b>			
	<b>Gradu Ertaineko 1.zikloa, Atletismoa</b>			
	<b>Gradu Ertaineko 1.zikloa, Salbamendu &amp; Sorospen</b>			
	<b>Gradu Ertaineko 1.zikloa, Saskibaloia</b>			
	<b>Piraguismo. Gradu Ertaineko 1. zikloa</b>	24-25	2024-02-12tik 24-03-08ra eta 2024-07-08tik 2024-09-04ra	2024-02-12a baino lehen
	<b>Piraguismo. G. Ertaineko Azken zikloa-Ur Biziak</b>	24-25	2024-09-05etik 2024-09-27ra	2024-09-05a baino lehen
	<b>Piraguismo. G. Ertaineko Azken zikloa-Laket-pirag.</b>	24-25	2024-09-05etik 2024-09-20ra	2024-09-05a baino lehen
	<b>Zaldiketa (GEko 1.zikl, GEko azken zikl, Goi-maila)</b>	24-25	2024-08-26tik 2024-09-20ra	2024-08-26a baino lehen
<b>Gradu Ertaineko 1. zikloa, Neguko Kirolak</b>	24-25	2024-01-22tik 2024-02-19ra	2024-01-22a baino lehen	
<b>Esgrimako Gradu Ertaineko 1. zikloa</b>	24-25	2024-01-02tik 2024-02-02ra	2024-01-02a baino lehen	

<sup>1</sup> CEPD KIROLENE KIIP ikastetxeak mahaikideak proposatuko ditu eta Ikastetxe eta Plangintza zuzendaritzak izendapena ebatziko du.





## II. ERANSKINA

Sarbidea Kirol Tek.Titulura	Oinarrizko Arautegia	Epaimahaikideak	Sarbide probaren edukia
Mendi eta Eskaladako Kirol teknikari	702/2019 Errege Dekretua (2020-01-10eko BOE)	702/2019 EDko 36. Artikulua	702/2019 EDko X, XI, XII eta XIII Eranskinak
Mendi eta Eskaladako Goi-mailako Teknikari titulua	701/2019 Errege Dekretua (2020-01-10eko BOE)	701/2019 EDko 23. Artikulua	701/2019 EDko VII Eranskina
Neguko kirolak	319/2000 Errege Dekretua (BOE de 28-03-2000), 172/2010 Dekretua (2011-07-28ko EHAA). Akatsen zuzenketa (2012-11-26ko EHAA)	II Eranskin, 3. Atala (319/2000 EDa)	319/2000 EDko II. Eranskina
Atletismoko Kirol Teknikari	427/2023 Errege Dekretua (2013-06-17ko BOE)	427/2023 EDko 24. Artikulua	427/2023 EDko VII. Eransk.
Saskibaloiko Kirol Teknikari	980/2015 Errege Dekretua (2017-05-29ko BOE)	980/2015 EDko 24. Artikulua	980/2015 Errege EDko VII. Eranskina
Eskubaloiko Kirol teknikari	900/2021 Errege Dekretua (2021-11-06ko BOE)	900/2021 EDko 24. Artikulua	900/2021 EDko VII. Eransk.
Futbola eta Areto-futbola	320/2000 Errege Dekretua (2000-03-29ko BOE), 129/2004 Dekretua (2004-12-02 EHAA)	II Eranskin, 3. Atala (320/2000 EDa)	320/2000 ED II. Eranskina
Salbamendu eta sorospeneko Kirol Teknikari	878/2011 Errege Dekretua (2011-07-22ko BOE)	878/2011 EDko 25. Artikulua	878/2011 EDko VII. Eransk.
Zaldiketako disziplinetako Kirol Teknikari	933/2010 Errege Dekretua (2010-08-31ko BOE)	933/2010 EDko 29. Artikulua	933/2010 EDko VIII. Eransk.
Zaldiketa, Goi-mailako Teknikari	934/2010 Errege Dekretua (2010-08-31ko BOE)	934/2010 EDko 20. Artikulua	934/2010 ED VI. Eranskina
Bela aparailuarekin. Kirol Teknikari	935/2010 Errege Dekretua (2010-08-31ko BOE)	935/2010 EDko 28. Artikulua	935/2010 EDko VIII. Eransk.
Urpeko Igeriketa Eskafandrarekin. Kirol Teknikari	932/2010 Errege Dekretua (2010-08-31ko BOE)	932/2010 EDko 25. Artikulua	932/2010 EDko VII. Eranskina
Piraguismoko Kirol Teknikari	981/2015 Errege Dekretua (2015-11-25eko BOE)	981/2015 EDko 33. Artikulua	981/2015 EDko IX. Eranskina
Esgrimako Kirol Teknikari	911/2012 Errege Dekretua (2012-06-09ko BOE)	911/2012 EDko 24. Artikulua	911/2012 EDko VII. Erans.



## III. ERANSKINA

ARAUBIDE BEREZIKO KIROL IKASKETARAKO SARBIDE PROBETAKO EPAIMAHAIKIDEAK IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIAK IZENDATZEKO PROPOSAMENA

MODALITATE/ ESPEZIALITATEA: \_\_\_\_\_

Izen Abizenak	Identifikazio Zenbakia	Kargua <sup>2</sup>	Egiaztatutako titulazioa <sup>3</sup>

\_\_\_\_\_ en, 20\_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_ ren\_\_\_\_an

Fdo.: CPED KIROLENE KIIP Ikastetxe Publikoaren zuzendariaren sinadura

<sup>2</sup> Mahaiburua / idazkaria / ebaluatzailea / aholkularia.

<sup>3</sup> Mahaikide ebaluatzaileen kasuan